



Munduko Kopan

«Taldearen batasuna da gakoa»



Aguilera

lizentziaduna



Pep Olle

Vilarrança de Penedes

36 urte. Kirol jantzien ordezkaria

lanak lehen postuan amaitu zuten larunbatean, baina igandean ibilbideko liburuaren irakurketan akats txiki bat izan zuten, eta galdutako minutu horien erruz proba bera galdu zuten. Bigarren postua ez zen txarra, ordea; lidergoari eusteko nahikoa.

Japonen, Tokyo ipar-mendebaldean, katalanek orientazio huts batzuk izan zituzten mendiko bizikletarekin, eta finlandiarrek ondo baino hobeto baliatu zuten Salomon eXtream taldearen noraez hori, proba irabazi eta Munduko Kopako sailkapena areago estutzeko.

Halaxe iritsi zen Siziliako proba, bost puntuko alde eskasarekin katalanen eta finlandiarren artean, eta frantziarrak bien hutsen zain. Katalanek, ordea, ez zuten hutsik egin. Kanoako lehen proban atzetik hasi arren, ondoko orientazio ibilbide guztietan ez zuten akats bakar bat ere izan, eta Etna sumendiko igoeran indar handia erakutsi zuten. «Hainbeste entrenamendu ordu, hainbeste urduritasun eta bidaia... Merezki izan du», adierazi zuen Lluís Capdevilla taldeko buruak.

Pep Ollek urte asko daramatza mendian, espedizio ugarian parte hartutakoa da, eta egun *raid*-etan dabil buru-belarri.

• **Nolakoak izan dira Munduko Kopako *raid*-ak?**

Probak nahiko antzekoak izaten dira. Lauzpabost jarduera errepikatu egiten dira: mendiko bizikleta, korrika, mendia eta ura beti daude. Gero itsas inguruan den edo erreka batean den, uretako probak modu batekoak edo beste-koak izaten dira. Larunbat eta igandean, 20 eta 30 ordu bitartean aritzen gara jo eta ke.

• **Finlandiarrekin lehia estua izan duzue, ez da hala?**

Bai, akats batzuk izan ditugu proba batzuetan, eta Siziliara oso alde txikiarekin iritsi ginen. Errendimendu aldetik hobeak izan garelako uste dut, baina tira, azkenean emozio gehiago izan da.

• **Taldea nola osatu zenuten?**

Mundutxo honetan denok ezagutzen dugu elkar. Taldeak urteak daramatza martxan, baina hasierako haietatik Lluís Capdevilla geratzen da bakkari, aitona. Galdetu zidaten ea taldeko kide izan nahi nuen, eta nik baietz.

• **Zuk zeuk zenbat urte daramatzazu *raid*-etan parte hartzen?**

Raid puruetan hiru urte besterik ez. Lehen, mendia eta bestelako jarduera batzuk egiten nituen. Proba konbinatuak beti gustatu izan zaizkit, eta lagun batek animatu ninduen.

• **Salomon etxeak babesten zaituzte, baina hortik profesionaltasunera bide handia dago, ezta?**

Bai, hala da. Salomonek materiala jartzen digu, bidaiak eta bestelako gastu batzuk ordaintzen dizkigu, baina hortik aurrera gauza handirik ez; ez daukagu soldatarik eta ezer.

• **Orduan, nola ateratzen duzue denbora entrenatzeko eta?**

Mundu guztiak bezala. Ez pentsa asko entrenatu behar denik ere. Jarduera gehienak teknikoak dira, eta prestakuntza teknikoa kasik garrantzitsuagoa da. Ez dira ziztu bizian ateratzeko lasterketak, hasieran suziri asko botatzen badituzu, gero hustu egiten zara.

• **Hiru urte daramatzazu *raid*-etan. Nola ikusi duzu bilakaera?**

Antolakuntzak gero eta serioagoak dira, batez ere Munduko Kopa bezalako zirkuituetan. Taldean lehiatzea ere ondo dago. Laukotean neska batek joan behar duenez, erritmoak ez dira hain altuak...

• **Non dago *raid* baten gakoa?**

Konbinatu bat da. Ezin duzu fisikoki oso indartsua izan eta iparra non dagoen ez jakin, eta alderantziz, orientazio ona izan baina fisikoki ez erantzun. Konpletoa izan behar duzu alor guztietan. Ezau-garririk garrantzitsuena taldearen batasuna edo elkar ondo ulertzea dela esango nuke.

• **Proba hauek mendian eragiten duten kaltea kritikatzan dutenen aurrean zein da zure iritzia?**

Azkar joan edo mantso joan, kalte berdina egin dezakezu. Errekara arraun egitera joan, edota lehiketetan joan, errekek berdin-berdin nabarituko du. Eta mendira banoa, edo dortsalik gabe, berdin kaltetu dezaket. Jendeak kritikatu nahi badu, kritika dezala, zilegi da. Baina ziur nago mendiari ez zaiola minik egiten.

• **Eta lehiaketa mendira eramate-ari buruz zer diozu?**

Ni beste aldean ere egon naiz, eta mendian lehiatzen hasi nintzen aurrenetakoa ere ni izan nintzen. Zer esango dizut nik? Puristak beti izango dira, nik ez ditut kritikatzan, baina ez dut euren iritzia konpartitzen. Egin dezakegun kaltea oso txikia dela iruditzen zait.